Haurra eta ahozkotasuna

Juan Kruz Igerabide

Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpena

Iruditzen zait ezen gaur egun ahozkotasunaz mintzatzen garenean, batik bat hezkuntza alorrean, etxearen teilatuari begira aritzen garela. Erreteila on bat falta du gure gazteriak, diogu, gero eta itogin espresibo gehiago ageri zaizkio. Eta egia da; begi-bistakoa baita. Baina bada zerbait oinarrizkoagoa, ia ikusten ez dena, etxearen dotoretasunarekin zerikusi gutxi duena, baina etxeari tente eta sendo eusten diona. Hizketan baino zerbait gehiago ikasi behar du haurrak; egoera komunikatibo bati egoki erantzuten baino zerbait gehiago; ingurunea deskribatzen baino zerbait gehiago. Eta, batez ere, horien guztien aurretik, hasiera-hasieratik. Lehen-lehenik eman beharreko pausoa gorputz eta arimaz mintzatzen ikastea dela iruditzen zait; eta, horretarako, sentitzen denari hitzak jartzen ikasi behar da.

Gako-hitzak
Mintzoa, haur-poesia, sentipenak adieraztea, lotura sinbolikoa, hitzaren jolasa, igarkizunak

Oso arduratuta gabiltza azkenaldi honetan, ahozko komunikazioa dela eta. Gure haurrak gero eta hizkuntza pobreagoan mintzatzen omen dira.

Bide batez esanda, mintzatu hitzak, ni jaio nintzen bailaran, konnotazio bereziak zituen. Hitz egitea gauza bat zen; mintzatzea, zerbait gehiago. Hitz egitea zen hizkuntza batean moldatzeko ahalmena. “Haur horrek hitz egiten ikasi du”, “oso dotore hitz egiten du amona horrek”. Mintzatzea, ordea, besterik zen. Norbait berriketan eta denbora-pasa ari zitekeen, baina mintzatzen hasten zenean, akabo berriketak; norbait mintzatzen zenean, hurrengo pausoa agian borroka izan zitekeen. Mintzatzea zen norbaiti bereak eta bi esatea, mintzatzea zen hizketaren bidez norbait bere lekuan jartzea, mintzatzea zen jende aurrean edo lagun artean jarrera bati hitzez eustea. Hitz egitea baino gehiago zen mintzatzea.

Ez naiz hiztegi kontuekin hasiko; mintzatzea eta hitz egitea sinonimoak dira. Ados. Baina esan dudanak badu ahozkotasunaz dudan ikuspegiarekin zerikusirik. Badakit jende

aurrean hitzaldi bat emateko prestatzea, irratian hitz egiteko trebetasuna lantzea, gai bat egoki azaltzeko gaitasuna lortzea, ondo ahoskatzea, eta beste hainbat gai hartzen dituela gaur egun kezkatzen gaituen ahozkotasunak. Eta hezkuntza-sisteman ahozkotasunaz arduratzen direnean, irakasleak ahozkotasunari buruz aritzen direnean, batik bat alderdi pragmatiko horiek lantzen dituzte. Azken batean, ahozkotasuna oratoriaren alderditik lantzen da, dotore eta modu zehatzean hitz egiteko ahalmena landu nahi da; azken batean, gizarteak aurrez aurre ipintzen dituen beharrei erantzuteko baliabideak eskaini nahi zaizkio haurrari. Hori guztia beharrezkoa izango da, baina ahozkotasunaren beste alderdi bat seinalatu nahirik ari naiz aspaldi honetan, ez baitut uste oso kontuan hartzen denik ahozkotasuna lantzeko egiten diren ahaleginetan.

Mintzoa deituko diot, nire bailaran ematen zitzaion esanahi-ñabardura hura aitzakiatzat hartuta.

Zein da ñabardura hori: ongi ahoskatzea? Ez preseski. Gai bat modu egoki eta zehatzean azaltzea? Ez preseski. Oratoria menderatzea? Ez preseski. Hori guztia baino lehenagokoa da. Gorputz eta arimaz zerbait esatea da mintzatzea; nortasun osoa inplikatzea.

Haurraz eta ahozkotasunaz ari naizelarik, lehen-lehenik eman beharreko pausoa iruditzen zait hori: gorputz eta arimaz mintzatzen ikastea; eta, horretarako, sentitzen denari hitzak jartzen ikasi behar da. Gero etorriko da oratoriaren didaktika, baina lehen-lehenik sentimenduak modu sakonean adierazteko indarra bereganatu behar du haurrak; ez du soilik hitz egiten ikasi behar, mintzatzen ere ikasi behar du.

Eta horrek guztiak ahozkotasun tradizionalaren ezaugarri batzuekin topo egitera narama. Beste hitzaldi batzuetan azalduak ditut Ong, Zumthor eta beste zenbaiten azterketak; azaldua dut nola haurrak lehen urteetan duen pentsamoldeak ahozkotasunean garatutako kulturekin zerikusi zuzena duen. Azalpen horiek guztiak ahaztu gabe, gaur puntu bat besterik ez dut atera nahi mahai gainera, eta esaldi batean laburtuko dut: mintzoaren hasieran poesia dago.

Haurrekin ahozkotasuna lantzea haurren hizkuntza indar poetikoz betetzea dela esan nahi dut. Hizketan baino zerbait gehiago ikasi behar du haurrak; egoera komunikatibo bati

egoki erantzuten baino zerbait gehiago; ingurunea deskribatzen baino zerbait gehiago. Eta, batez ere, horien guztien aurretik, hasiera-hasieratik, sustrai gisa ikasi behar du “zerbait gehiago” hori. Ikasi behar du haserre edo amorraturik dagoenean haserre hori adieraziko duten adierazpide espresiboak erabiltzen, ñabarduraz beterik, egoeraren arabera. Ikasi behar du penari hitzak jartzen:

Beti penetan, beti penetan

bizi naiz mundu honetan.

Egunaz zerbait alegratzen naiz

gabaz beti penetan.

Nereganako amodioa

joan zitzaizun batetan.

Ikasi behar du beldurrari hitzak jartzen:

Bonbolontena ene laztana

ez egin lorik basoan

azeritxoak eroango zaitu

erbia zarelakoan.

Ahozkotasunetik edo idazle jakin batzuengandik harturiko poemak esateak, buruz ikasteak… barne-bulkadak adierazten erakusten dio haurrari. Hori da mintzatzen ikasteko eman dezakeen lehen pausoa.

Gizakiaren arazorik gogorrena existentziala da; lehenik, bizirik irautea; eta, bigarrenik, zertarako bizi den galdetzea eta erantzuten saiatzea. Jaiotzatik beretik hasten du haurrak lehen borroka, bizirik irautearena, eta berehala ikasten du kezka hori irakurtzen amaren begietan, aitaren bekokian. Bigarren pausoa hizkuntza ikastearekin berarekin datorkio: lehen hitzak, ama, aita, janarien izenak… horiek guztiak dira lehen harridura existentzialaren adierazgarriak.

Ahozko kulturetan, poema oinarrizkoenak inguruaren deskripzio huts dira, eta inguru horrekin harremanetan jartze bat.

Hona boskimanoen kantu bat:

Ilargi gazte

Ilargi gazte!

Agur, Ilargi gazte!

Agur, agur!

Ilargi gazte!

Ilargi gazte, hitz egidazu!

Agur, agur!

Ilargi gazte!

Esadazu zerbait.

Agur! Agur!

Eguzkia irtetean

hitz egin behar didazu,

zerbait jan dezadan.

Esadazu zertxobait,

jan dezadan.

Agur! Agur!

Ilargi gazte!

Hau guztia esaten ari naizela, iruditzen zait ezen gaur egun ahozkotasunaz mintzatzen garenean, batik bat hezkuntza alorrean, etxearen teilatuari begira aritzen garela. Erreteila on bat falta du gure gazteriak, diogu, gero eta itogin espresibo gehiago ageri zaizkio. Eta egia da; begi-bistakoa baita. Baina bada zerbait oinarrizkoagoa, ia ikusten ez dena, etxearen dotoretasunarekin zerikusi gutxi duena, baina etxeari tente eta sendo eusten diona. Horretaz aritu nahi dut.

Hasieran, poesia zen. Nahi dutena esango dute, baina mintzoaren oinarrian poesia dago, nola baitago poesia literatura-genero ororen oinarrian ere. Poesiak hasi zuen mintzoa, edo alderantziz; berdin dit. Gaur egun, iruditzen zaigu teilatua berritu eta etxea dotore ipintzeko modu eder bat dela poesia, hizkuntzaren dotoreziaren gailurra. Ez dut hori ukatuko. Baina poesia da, baita ere, hizkuntzaren adierazpide-indarraren sorreran dagoena; agian ez hain dotorea, agian baldarra ere bai, batzuetan, baina bizi-indarrez betea.

Lehengo batean, honako sehaska-kanta hau zekarren Andu Lertxundik *Berria*ko leihoan:

Txin-txin-txin

umea zuloan

aita negarrez

ama dolorez

etxean inor ez

katua besterik ez.

Poematxo polita da, baliabide poetikoz hornitua. Erreteila dotorea ipini diote teilatuari. Baina hor al dago poema horren muina, indarra? Ez, alajaina! Imajina dezagun hil-kanpaia, eta hilobia, eta haur hila, eta gurasoak negarrez, eta etxea hutsik, katu bakartiak hustasuna are hutsagoa egiten duela. Poema horren muina bizipen existentzial gogor batean dago.

Eta kantatzen badugu:

Bonbolontena ene laztana

ez egin lorik basoan

azeritxoak eroango zaitu

erbia zarelakoan.

Ez da sehaska-kanta polit bat soilik. Aitzitik, amaren larritasuna adierazten du, haurra baso ertzean utzi, agian titia eman berria, eta sorora lanera itzultzen delarik. Kantu hori benetako arrisku batetik sortua da.

Hala, maila sinbolikoan, gizakiak bere historian izandako beldur, poz, amorru eta beste hainbat sentimendu bizitzen dituzte gure haurrek; badakite, nolabait, benetako egoera bat adierazten dietela.

Haurrak zazpi antxumeen ipuina entzuten duelarik, zuzen-zuzenean ulertzen du badagoela bizitzan zerbait otsoaren parekoa, otsoa bezain beldurgarria, eta amak babesten duela hartatik, eta kontuz ibili behar duela. Ez daki zehatz-mehatz zer den, baina modu sinbolikoan oso sakonetik ezagutzen du bizipen hori.

Modu berean, haurrak poema eta ipuin sinbolikoak entzuten dituelarik, barne-bizipenei hitzak ipintzen dizkie.

Horrekin guztiarekin, ahozkotasunari buruzko kezkari nolabait buelta eman nahi nioke, jertse bati ematen zaion bezala. Onartzen dut ahoskera landu beharra dagoela, jende aurrean hitz egiten ohitu behar duela haurrak, eta abar, baina batez ere etxeari teilatua ipini aurretik zimenduak nola dauden begiratzea nahi nuke. Sentimenduen eta bizipen existentzialen irudi sinbolikoz osaturiko zimendurik ez duen haurra nekez egingo da mintzoaren jabe.

Horrek zer esan nahi du? Haurrak zerbait sentitzen duen bakoitzean poema bat esateko gai izan behar duela? Ez, noski. Agian isilik geratuko da, agian ez du adierazten jakingo, edo ez du adierazteko gogorik izango, baina bere barruan egosten ari denak sare sinboliko bat ondo eraikia baldin badu aurrez aurre, ziur egon mintzoaren bidez agertuko dela era batean edo bestean, agian hitz askoren bidez, agian silaba edo hasperen soil baten bidez.

Izan ere, honetan guztian, bi alderdi hartu behar dira kontuan, batez ere:

Elikatzea eta adieraztea.

Poesia eta irudi sinbolikoak dira haurraren mundu-ikuspegia eta kezka existentzialaren kutxa elikatzen dutenak. Kutxa hori ondo horniturik egoteak ematen du mintzatzeko aukera, hizkuntza adierazgarria egiteko aukera. Kutxa hori elikatzeko, haurrak poesia, ipuin eta kantuak entzun behar ditu erruz, zenbat eta irudi sinbolikoz eta esperientziaz beterikoagoak izan, hobe. Esperientzia diot, ezen, esate baterako, aitona batek kontatzen dituen oroitzapenek ere bizi-indar handia dute. Irudi sinbolikoak diot, ezen ez da gauza bera haurrari esatea "zer bihurria zaren" edo "haur honek etxea ipurdiz gora jartzen du". Bigarren modu horretan mintzatzeko gai den irakasle oso gutxi dago. Beraz, haurrak testu-liburuko hizkuntza bat entzuten du etengabe, eta gero modu horretan jende aurrean hitz egiteko eskatzen zaio, ahozkotasunaren erritmoa eta errepikak kontuan izanik, noski.

Eredu horrek aldez aurretik porrot egingo duela begi-bistakoa da. Horrekin ez dut irakaslea errudun bihurtu nahi; daukagun hizkuntza-gaitasuna daukagu, eta hori da errealitatea. Baina, irakasle horrek berez egin ezin duena, poesiaren eta ipuinaren laguntzaz egin dezake hein handi batean, eta, bide batez, bere mintzoa ere indartu egingo du.

Hauxe da, bada, nire ikuspegia. Ez nator errezeta sorta batekin. Aski iruditzen zait, hasteko, kontuaz jabetzea; kontuaz jabetzen denak badaki zer egin behar duen: hasiko da han eta hemen haurrentzat egokiak diren pieza poetikoak bilatzen eta probatzen (hala tradiziokoak, nola gaurkoak); haurra hunkitzen duten ipuinak kontatuko ditu; gonbidatuko du amona bat edo aitona bat, bereziki ondo mintzatzen dena, ez gai bat azaltzera, baizik eta bere esperientziak kontatzera, haurrei bere oroitzapenak adieraztera. Eta konturatuko da etxearen zimenduak sendotzen hasten direla. Gero, teilatu dotoreagoa ipini ala ez, ez dut esaten berdin denik, baina denok ez gara jaio irratiko esatariak izateko, edo hizlari izateko, edo bertsotan aritzeko, edo jende aurrean antzezteko; denok, ordea, den-denok dugu sentimenduak adierazteko beharra, gure barruko anabasa antolatu eta gauzak argi samar adierazteko beharra.

Lehenago adierazi ditudan bi pauso horietan, elikatzean eta adieraztean, eskolak lehen pausoan lan handia egin dezake, eta gurasoek etxean landu ditzaten ereduak bultzatu, modu zabalean. Bigarren pausoa, bidea zabalduz gero, berez etorriko da, haurren

adierazmoldea hitz egitetik mintzatzera igaroko da. Hor dago gakoa, nire ustez; ahozkotasun formalista bat bultzatzea bigarren mailako beharra da.

Oroitzen dut nola ikasten zuten euskaraz gerra ondoren gure herrira iritsitako etorkinen haurrek. Unean uneko beharrei erantzunez. Eskolak hori hausten du; hizkuntza ez da ikasten unean uneko beharrei erantzunez, baizik eta aurrez diseinaturiko behar batzuei erantzunez; egoera komunikatiboak sortzen dira, eta haietan lantzen da hizkuntza, eta maisuari antzeman egiten zaio hizkuntza sartu nahian ari dela. Horrek, oraingoz, ez du erremediorik, didaktika osoaren egoera orokorrak eragina baita. Baina asko aberastu daiteke egoera hori, lehen adierazitako bidetik.

Mintzoak lotura zuzena du biziraupenarekin, eta ahozko poema tradizionaletan indar hori behin eta berriz agertzen da. Izadiko arriskuen erdian bizirik irauteko, mintzatu egin beharra dago; ingurukoei gauzarik behinenak adierazteko, mintzatu egin beharra dago; izadiaren indarrei zerbait eskatzeko, mintzatu egin beharra dago.

Hona boskimanoen beste kantu bat:

Zatoz, ilberri

Ilberri, zatoz, ekarri ura, ekarri ura.

Ilberri, zatoz, egin euria, egin euria.

Ilberri: bota ur zipriztinak guri.

Gaur egun, eten bat bizi dugu: hitza erreferentetik gero eta urrunago dago (tartean proiektu mediatikoak daude); gizakia ez da izadian zuzenean txertatzen, gizarte babestu baten bitartez baizik. Beraz, hizkuntzak adierazpen-indarra galtzen du, urgentziazko indar hori. Indar horri eusteko bide bat norberaren sentipenekin lotura zuzena egitea da, eta

gizakiak izan dituen kezka unibertsalekin lotura sinbolikoa berreraikitzea. Aukera hori eskaintzen dute poesiak eta ipuin tradizionalak.

Aipaturiko behar urgentziazko hori bete-betean agertzen da nerabezaroan. Nerabezaroa da bizitzaren basoan buruz behera murgiltzeko une erabakigarria. Hizkuntza biziaren behar larria agertzen da; nerabeak mintzatu egin nahi du, ez soilik hitz egin; bere mintzoaren indarra probatu nahi du. Orduan, aurrez egoki elikatu gabeko kutxa batetik ez du ezer handirik aterako, eta beste modu batzuk bilatu beharko ditu, ez beti kalterik gabeak.

Baina jarrai dezadan ahozkotasunaz eman dudan ikuspegia zabaltzen.

Adierazi dudan ikuspegitik, oinarrizko bereizketa ez da ahozkotasunaren eta testu idatziaren artekoa, mintzoaren eta hizkuntza hotzaren artekoa baizik. Horrekin ez naiz ari ahozkotasunaren arlo teorikoan zerbait berria sartu nahirik, baizik eta haurra eta ahozkotasunari buruzko gaiari erantzun praktiko bat eman nahirik.

Gaur egun, eskolak nahi duen ahozkotasuna, eskolak behar duen ahozkotasuna, eta haurrak behar duena ez datoz bat oso-osorik, eta hori nerabezaroan agertzen da gori-gorian. Kontu horretaz jabetzea oinarrizkoa iruditzen zait, batik bat euskaraz bizi dugun egoera diglosikoan. Euskara eskolako hizkuntza soila baldin bada, gureak egin du. Haurraren eta gaztearen sentikortasunean sartzen ez bada, hizkuntza formal hutsa izango da; zulo hori, jakina, hizkuntza berreskuratzea bultzatzen duten ideologien eta sentimendu erromantikoen bidez ordeztu da denbora luzean, baina horrelako ahaleginek une historiko jakin baterako balio dute; gero, instituzionalizatu ahala, gastatzen joaten dira, eta azkenean, oztopo bihurtzen. Prozesu hori gizartearen arlo askotan ezagutu dugu; are gehiago gertatuko da, bada, hizkuntza tresna hain intimoa izanik.

Haurrak behar duen sare sinboliko eta adierazkorra aberasteko ahozko tradizioko testuak zein idatzizkoak erabil daitezke; bi iturriak ez dira elkarren kontrakoak, elkarren aberasgarri baizik. Kontua da zer-nolako testuak eskaintzen diren; txiki-txikitandik, pentsamendu magikoa deitu izan den hori aberastuko duten testuak behar ditu, eta ez horrenbeste testu deskriptibo hutsak. Pentsamendu magikoa ez da elikatzen fantasia hutsal

eta plastikozko baten bidez, baizik eta bizitzako esperientzia indartsuak adierazten dituzten testuen bidez. Desberdintasuna ikusteko, aski da konparatzea bi testu.

Haurren irakasle ibili nintzenean, haien begiradak oso desberdinak ziren bi kanta hauek kantatzean.

“Pintto, pintto gure txakurra da eta,

pintto-pintto bere izena du;

txuri beltza da eta ez du koska egiten,

begi bat ixten du jolastu nahi badu”.

“Txoriñoa nora hoa bi hegalez aidian

Baionara joateko elurra duk mendian:

joango gaituk elkarrekin hura urtzen denian”.

(Originalak “Espainialat juaiteko” dio; Hegoaldean

gaudenez, kontrako bidaia irudikatzen da)

Zin egiten dizuet eragina oso desberdina zela, eta bizipen horrek eraman ninduen zer gertatzen ote zen jakin nahi izatera. Azken batean, bi kanta horien arteko diferentzia poesia da, poesia besterik ez. Gero, zabalago ere teorizatu dezakegu; baina oinarrian horixe dago, poesia, eta, proban jartzen denean, antzeman egiten da.

Horregatik diot, ikuspegi honetatik kontrakotasuna ez dela ahozkotasuna/idatzizkotasuna, baizik eta poesia/ez poesia, zentzurik oinarrizkoenean, zentzurik ez-erromantikoenean, mintzoaren zentzuan, gorputz eta arima (eta ez axaleko fantasia hutsez) mintzatzearen zentzuan.

Orain, gizartean agertu den beste faktore berri bat ere aipatu nahi dut; berria da, eta zorria baino bizkorrago hedatzen ari da mundu osoan. Hain zuzen ere, lan honi beste izenburu ironiko bat ipintzekotan egon nintzen: “Haurra eta hatzezkotasuna”.

Aro historiko berri batean sartzen ari gara, eta, aldaketa ugari ezagutzen ari bagara ere, oinarrizko arazo ergonomiko bat ari da mundua iraultzen, edo agian gainbeherako bidean ipintzen. Diotenez, hatz potoloa eta erakuslea biltzeak berebiziko aurrerapen ebolutiboa ekarri zuen, tximutik gizakirako pausoa; alea bizkor bildu eta jasotzeko trebetasuna ekarri zuen horrek, eta zibilizazio osoak eraiki ziren alearen inguruan (arrozaren zibilizazioa, gariarena, artoarena). Orain, hatz potoloaren bidez munduko edozein txokorekin harremanetan jar gaitezke; hatz baten bidez ipin ditzakegu martxan besteekiko harremanak; hatz baten bidez mundu birtual batean sartzeko aukera dugu. Gizakia diktadore txiki birtuala bihurtzen ari da. Eta haurrak, berriz, abiada osoan ari dira horretara egokitzen. Horrek aukera handiak zabaltzen ditu mundu modernoan, baina arrisku psikiko latzak ere baditu, zeren errealitate gordinetik urrundu egiten gaitu. Denok nahi dugu mundu erosoago batean bizi, baina gure barruak sakon-sakonetik bizi nahi du bizitza, eta askotan bi alde horiek (erosotasuna eta bizitza sakon bizitzea) elkarren kontra daude. Egoera berri horrek mintzoari ez dio batere onik egiten. Lehen aipatu dugun zuloa, zimendu falta areagotu egin daiteke egoera berriarekin, azti ez bagabiltza.

Hizkuntzak lurraren usaina galtzen duenean, pertsonaren senak lurrera itzultzeko irrika sentitzen du; behar horri erantzun ezean, zulo handi bat agertzen zaio psikean, eta gero zerbaitekin bete beharko du.

Haurtzaroan ahozko tradizioa eta poesia erruz txertatuz gero, hizkuntza zaporez, doinuz, ukimenez, irudi zabal eta biziez betetzen da, mintzo bihurtzen da, eta haurra egoera hobean geratzen da bizimoduak ekarriko dizkion egoerei aurre egiteko.

Orain, haurrekin egindako zenbait praktika aipatu nahi nituzke.

Esate baterako, mintza nadin hitz-jokoez. Haur poesiaren iturria hitzekin eginiko jolasetik jaiotzen da. Baina jolas hori ez da hizkuntza edozein modutan erabiltzeko; aitzitik, oso kontu serioa da; haurrak jolas sinbolikoa egiten duenean, bete-betean bizitzen du egoera (hala gozatuz nola sufrituz); maila horretan egiten du hitzaren jolasa ere; beraz, edozein jolas txorok ez du balio, baizik haurrarentzat oso esanguratsua izango denak. Hori oso kontuan hartu behar da haurrekin jolasean hastean; bestela, usteko dute helduekin jolas egiteko ñoñokeriak egin behar direla; ez beren artean jolasten dutenean bezala. Jolasa debaldeko ekintza da, helduon ikuspegitik bizitzaren behar "garrantzitsuei" erantzuten ez diena, baina haurraren ikuspegitik behar existentzial sakon bati erantzuten diona; debaldekotasun hori da, hain zuzen, barne-askatasuna sentitzeko modu indartsu bat. Hitzarekin jolas egiten hasten garenean, hizkuntza pertsonalizatu eta geure-geure egiten dugu, gizartearen arauen zamatik askatuz.

Hitzek komunikazioa dute helburu, esanahi bat adieraztea. Hala ere, hitzen jolasak "beste" komunikazio bat ezartzen du, esanahiei erraiak atera eta bide berrietatik abiaraziz. Dena den, hitzak berekin du hala on egiteko ahalmena, nola kalte egitekoa. Barnea ustela duenaren hitz-jokoak ustelak izango dira. Aitzitik, haur xaloarenak, xalotasun paregabez josiak. Esopo, greziar alegilari ospetsua, janaririk onenaren bila bidali omen zuten nagusiek azokara; eta, hurrengo batean, janaririk txarrenaren bila. Bietan gauza berbera ekarri omen zuen: mingaina. Hortik atera kontuak.

Hitzekin eginiko jolasean, bi modu nagusi bereiz ditzakegu:

-Alde batetik, hitzen loturez eta eraldaketez eginiko jolasak dauzkagu: silabak lekuz aldatuz, esaldi baten esanahi-aniztasunarekin jolastuz…; horien artean, euskal tradizioko zapo-hizketa oso emankorra da, eta haurrarentzat zirraragarria.

-Bestetik, hitzen eta hizkuntzaz haratagoko mezuak uztartuz eginikoak daude. Adibidez, hitzek adierazitako mezuez gainera, soinuen doinu bat ere osa dezakegu, onomatopeiaz haratago doana.

Sentipenen eta logikaz haratago doan ikuspegiaren baitan biltzen ditu hitzen jolasak hizkuntza eta artea, garai bateko sorgin-hitzen, araoen, otoitzen eta botere-hitzen eremura hurbilduz. “Hasieran hitza zen”, esan dezakegu, beraz.

Hitz-jokoen teknikak izugarri dira, era guztietakoak. Zoratu arte murgil gaitezke hitzen eta letren zirimolan. Haatik, jokabide neurritsua gomendatu beharko genuke. Izan ere, neurririk gabeko hitz-jokoak hizkuntza erabat desarautzera eramango gintuzke, komunikazio normala apurtzera, zoramenera; edo, bestela, hitzen sareen artean galtzera eta aspertzera. Hitz-jokoak irudimenaren pizgarri eta plazer-eragile diren heinean, jolas zoragarri izango dira. Hala ere, poesiari, norberaren bizipenen eta sentimenduen adierazpenari, bidea ixten badiote, itogarri bihurtuko dira. Neurri eta egokiera kontua da.

Igarkizunak

Poesia guztiak du igarkizun-ukitu bat; haur jolas orok du igarkizun ukitu bat. Azken batean, existentziaren zentzuari buruzko galderak egiten hasteko modu bat da igarkizuna.

Aspaldikoak dira igarkizunak, eta munduko alde guztietan erabili izan dira. Ekialde Hurbilekoak bereziki finak dira. Horien artean, ospetsuak dira Salomon erregeari Sabako erreginak ipinitakoak. Esate baterako, honako hau: “Zein ur ez da lurretik jaiotzen, ez zerutik erortzen, eta egarria du ematen?” Zaldiei lasterka eginarazten diezunean botatzen duten izerdia omen da. Izerdia esanda ere aski zen.

Hitzekin adierazitako igarkizunen ondoan, keinuekin edo irudiekin adierazitakoak ere badira. Sabako erregina hori eskuetan arrosa bana zuela joan omen zitzaion Salomoni, eta erronka bota omen zion, ea gauza zen asmatzeko zein zen benetakoa eta zein paperezkoa. Orduan, Salomonek leihoak zabaltzeko agindu zien zerbitzariei. Erleak sartu ziren, eta benetako lorera joan.

Beste batean, eszitiarrek enigma bat bidali zioten Pertsiako Dario I.ari, haiei eraso egitekotan zela; igela, txoria, satorra eta bost gezi. Darioren mendeko buruzagi batek honako interpretazio hau egin zuen: “Eszitiarrek amore eman eta beren armak eskaintzen dizkizute (bost gezi), eta gainera ohore egiten dizute, naturako hiru elementuetan bizi diren

animaliak oparituz: urekoa, airekoa eta lurrekoa". Baina beste buruzagi batek honako esanahi hau irakurri zuen seinale haietan: "Satorrak bezala lur azpian edo igelak bezala ur azpian ezkutatzen ez bazarete, edo txoriak bezala ihesi joaten ez bazarete, gure gezien mende eroriko zarete".

Homerok, ahozko literaturaren bildumarik handienetako bat idatziz ipini zuen hark ere, eman zuen igarkizunik: "Handi naiz jaiotzean, indartsuen naizenean txiki, eta zahartzaroan berriro handi". Itzala da erantzuna, zeina handia baita goizean, txikia eguerdian, eta handia, berriz, ilunabarrean. Edo beste hau: "Ahizpak gara, eta bata bestearen heriotzatik jaiotzen gara". Eguna eta gaua dira bi ahizpa horiek.

Euskal tradizioan "nik papaita, zuk papaita", "tipitaki, tipitaki", "pipitaki, papataki", "zer dela eta zer dela" eta horrelako formulen bidez ematen zaie hasiera igarkizunei. Askotan, igarkizunak ipuin batean korapiloa edo intriga sartzeko erabiltzen dira.

Igarkizunen muina jakin-mina da, hitzekin jolasteko, burua kitzikatzeko, mundua aztertzeko edo ezagutzen ez duguna aurkitzeko irrika. Horrez gainera, igarkizuna abstrakzio-ahalmenaren hastapen bat da, haurrak garatzen duen pentsaera logikoaren laguntzaile. Hitz-gakoaren eta hori ezkutatzen duen igarkizunaren urruntasuna da, hain zuzen, abstrakziorako bidea, gehienetan metafora baten bidez adierazia. Igarkizunak joko metaforikoa bultzatzen du, eta horregatik da poesiaren iturrietako bat. Herri-tradiziotik jasotako "Lau titiriti, bi tatarata" (behia) igarkizun paregabeak jolas poetikoaren osagai zoragarriak erakusten dizkigu: onomatopeiak, soinu erritmikoaren sorburu, kontrastea, hoskidetasuna… eta, horrekin guztiarekin batera, sujerentzia-ahalmen harrigarria.

Igarkizunak matematika poetiko moduko bat dira, hitzaren aztiaren generoa. Igarkizuna ipintzen duena azti bihurtzen da; igarri behar duena, bilatzaile, bere buru-bizkortasuna eta irudimena suspertuz. Haurrentzat, etorkizuneko egarri intelektualaren, jakin-min zientifiko eta filosofikoaren ernalgarri izan litezke igarkizunak.

Aldi berean, igarkizunak bizitzaren ispilu ere badira, bizitza bera igarkizun handi bat besterik ez baita. Igarkizunak enigma bat du oinarrian; bizitzaren bideak ere enigmatikoak dira. Enigma horiek ulertu nahi ditugu, eta, eguneroko hizkuntza eta zientzia

puntu bateraino soilik iristen direnez, metaforak eta sinboloak erabiltzen ditugu enigma horiek azaltzeko. Metaforak eta sinboloak oinarrian igarkizun bat daramate; metafora eta sinboloa dira erantzunak, eta, aldi berean, beste igarkizun bat, zeinaren erantzuna beste igarkizun bat baita, inoiz amaitzen ez den kateatze etengabean; hori da poesiaren eta artearen ibilbidea: galderari erantzuna emanik, erantzun horrek beste galdera bat du oinarri; eta horrek formen eraldaketa amaigabea dakar.

Jose M. Satrustegik oso maite duen haur-poema zahar bat ekar genezake enigmaren adibidetzat: "Amak hil nau, aitak jan nau, nire arreba panpoxak berpiztu nau". Poema horrek badu ipuin-aldaera bat: amak mutikoa hiltzen du, eltzean egosi eta aitari ematen dio jateko; arrebak hezurrak biltzen ditu, eta mutikoa berpizten du. Kontakizun horren antzekoak hamaika dira munduan, nabarienetakoa Osirisen mitoa, edo Fenix hegaztiarena, zeina bere errautsetatik birjaiotzen baita, hil eta gero. Zer adierazten digu poema-enigma horrek? Batek esango du heriotza sinbolikoa ikus dezakegula, gurasoengandik askatu eta nortasun berri bat eraikitzen duen gaztearen eredu arketipikoa. Beste batek urtearen amaiera ikusiko du, eta neguaren errautsetatik urte berri bat jaiotzen. Izango da interpretazio sinbolikoak gutxietsi eta gizaki-jaleak gineneko oihartzun garbiak ikusiko dituenik. Alabaina, erantzun bakoitzaren haritik galdera berriak agertuko zaizkigu. Haur baten ahoan horrelako kanta ikaragarri bat entzunik, barruan hotzikararekin batera galdera-ikur handi bat agertzen zaigu, ematen dizkiguten interpretazioek erabat asetzen ez duten galdera-ikur misterioz betea.

Orain beste arlo batera igarota, bada Euskal Herrian kantu zaharrik, liho-lanaren penak adierazten dituenik. Horien artean, ziur asko, "Oi, Pello, Pello" da ezagunena. Kateatze amaigabe bat da horrelako kanten egitura; kantariak, hitz gutxi batzuk aldatuz, etengabe jarrai dezake kantua luzatu eta luzatu. Liho-lanetako genero hori, kateatze etengabearen teknika hori, haur-poema anitzetan agertzen da, bestalde: "Bat, Mattin parrat, bi Mattin ipurdi…", "Kukurruku, zer diozu", "A zer afaria egin genuen bart…"… Kantu mota horrek, nolabait, bizitzaren alegoria bat ere adierazten digu; bizitza prozesu amaigabe bat da, ahaleginez ahalegin, berrikuntzaz berrikuntza, zikloz ziklo, aurrera doana.

Liho-lanaren pareko da ahozko poesia, kateatze etengabe baten baitan murgiltzen baita, aurreko testu batzuen eta berak sortzen dituen testuen etengabeko egituratze eta berregituratze batean. Kateatze eta etengabeko berregituratze horretan, ahozko poesiak bi pauso nagusi egiten ditu behin eta berriz: irentsi eta kanporatu. Tradizio bat irentsi, norberaren barruan egituratu (tradizio hori bizi, alegia), eta kanporatu, besteei adierazi. Kanporatze horrek, idazlearen kasuan, ez du beti lortzen pertsonen arteko komunikaziorik, edo maiz urte askoren ondoren lortzen du, sarri idazlea desagertu eta gero; aldiz, ahozko testuek etengabeko irenste-kanporatzea dute izaera.

Barneratze horretan, ez da soilik kode bat eta esanahi multzo bat hartzen; areago, mundua sentitzeko eta interpretatzeko modu bat hartzen da, eta mundu hori eraldatzeko modu bat. Beste era batera esanda, hizkuntza komunikazio enpiriko hutsaren tresna baino areago, mintzo bihurtzen da.

JUAN TARRAT[1]

Behin bizi omen zen gizon bat,

hark izena omen zuen Juan Tarrat,

Juan Tarratek omen zuen kutxa bat,

kutxa barnean kutxatila bat,

kutxatila barnean orratz txiki bat,

orratz txikiaren barnean jostorratza ipurmotza,

jostorratzaren barnean behetik hasi eta gottinoko kaka mokordo handi bat;

[1] Zizurkilen jasoa; haurraren amona, Goizuetakoa.

eta hori zeinentzat?

Aurrena hitz egiten duenarentzat.

Beraz, isiltzeko tenorea da.